



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko urtarrilaren 23a

2. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, 2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Akats zuzenketa (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, haurrei eta nerabeei laguntza emateko lan-taldeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, “Ezgaitasuna duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak ezartzeko eta horren ondorioz gizarte jangela mantentzeko azterlana” izeneko kontusailaren betetze-mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Foru Komunitatean sendagai generikoen errezeten ehunekoak izan duen bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, osasun arlo osoan kalitatea ebaluatzeko eredu bat izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik utzi duen kargua bere borondatez María Luisa López Ballanok, Nafarroa Zaragozako EXPO 2008n egotearen arduradunak. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen kapital pribatuko zahar-etxeren batekin hitzartzeko zainketa aringarrien tratamendua edo, aitzitik, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko eremuren bat horretarako gaitzeko asmorik duen. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen fundazioko gobernu batzordean dituen ordezkariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, plantilla handitzeari eta lanpostu berrietan euskara ezagutzea eskatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, prestatu diren, prestatzen ari diren eta etorkizunean egingen diren plan zuzendariei eta horiek erasanean dituzten eraikin edo tokiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak NA-150 errepidea, Aos eta Murelu-Longida artean, hobetzeko duen asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 62.2 artikuluan ezarritako erregelamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko noren ardura den Queiles ibaiaren Tuterako tartea zaintzea. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, El Bocalen iragan ekainaren 24an izandako suteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik hautatu den aurrekontuen murrizketarako toki entitateek 0tik 3 urterako ikaste-txeak eraikitzeko dirulaguntzen kontusaila. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, 2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.**

**AKATS ZUZENKETA**

2009ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 21/2008 Foru Legean akatsa atzeman da. Legea 2008ko abenduaren 30eko 112. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa egin da aipatu foru legean.

Hartara, 16. orrialdean, 40. artikuluko bigarren lerrokadan ondokoa dio:

“Derrigorrezko irakaskuntza mailetan Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako eskolako jantokiak...”

eta ondokoa behar du:

“1. Derrigorrezko irakaskuntza mailetan Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako eskolako jantokiak...”

Iruñean, 2009ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, haurrei eta nerabeei laguntza emateko lan-taldeei buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du haurrei eta nerabeei laguntza emateko lan-taldeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du haurrak eta nerabeak artatzeko lantaldeei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Lehendabizi, haurrak eta nerabeak artatzeko lantaldeek dauzkaten langileei dagokienez, esan

beharra dago Familia, Haurtzaro eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiak, kontratazio administrati-boaren bitartez, lantalde horiek dituela. Haien osa-era diziplina anitzekoa da: psikologo bat, gizarte langile bat eta familietan esku-hartzeko bi profesional –gizarte hezkuntza diplomadunak edo/eta gizarteratzearen arloko goi mailako teknikariak–.

Plantillaren osaera eta dimentsioa, beraz, departamentuak dauzkan kontratu-exijentzietatik heldu dira. Departamentuaren iritziz, edonola ere, nahikoak dira zerbitzu hori emateko.

Bestalde, beste lantalde batzuk jartzeari begira, adierazi beharra dago Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea onetsi ondoren, hain zuzen ere 2008ko martxoan, haurrak eta nerabeak artatzeko beste lantalde bat jarri dela abian, Tafallan.

Iruñean, 2008ko uztailaren 2an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, “Ezgaitasuna duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak ezartzeko eta horren ondorioz gizarte jangela mantentzeko azterlana” izeneko kontusailaren betetze-mailari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du “Ezgaitasuna duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak ezartzeko eta horren ondorioz gizarte jangela mantentzeko azterlana” izeneko kontusailaren betetze-mailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 27ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera

egin du “Ezgaitasuna duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak ezartzeko eta horren ondorioz gizarte jangela mantentzeko azterlana” izeneko kontusailaren betetze-mailari buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

“Ezgaitasuna duten pertsonentzako sukaldaritza eskolak ezartzeko eta horren ondorioz gizarte jangela mantentzeko azterlana” izeneko 920005-91810-2276-231300 kontusaila, guztira 50.000 euro dituen, oraindik ere ez da betetzen hasi, zeren eta, haren helburu bakarra baita kontusailaren izenean jasotako azterlana egitea, eta azterlan hori abuztutik aurrera egitea aurreikusi baita.

Iruñean, 2008ko uztailaren 4an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, Foru Komunitatean sendagai generikoen errezeten ehunekoak izan duen bilakaerari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Foru Komunitatean sendagai generikoen errezeten ehunekoak izan duen bilakaerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 27ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**


Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Foru Komunitatean sendagai generikoen errezeten ehunekoak izan duen bilakaerari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Erantsita dator generikoen adierazlearen bilakaerari buruzko grafikoa.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko uztailaren 14an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely



## Galdera, osasun arlo osoan kalitatea ebaluatzeko eredu bat izateari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du osasun arlo osoan kalitatea ebaluatzeko eredu bat izateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 27ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 15ean


Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du osasun arlo osoan kalitatea ebaluatzeko eredu bat izateari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hartzen duen eremu osoan, kalitatea ebaluatzeko eredu bat dago.

Adierazi beharra dago salbuespen bat badagola Nafarroako Transfusioen Zentroaren kalitatearen ebaluazioari dagokionez: odol-transfusioko zentroetako kalitate-sistemari buruzko arauak eta zehaztapenak –zentro horiek berez eta osasungintzarako eta gizarterako daukaten interes publikoarengatik– transfusio-zentroen eta -zerbitzuen kalitate-arauak eta zehaztapenak ezartzen dituen urriaren 11ko 1343/2007 Errege Dekretuak arautu zituen; izan ere, errege dekretu horrek Espainia estatuko barne antolamendu juridikora aldatu zuen Europako Batzordearen 2005/62/EE Zuzentaraua, 2005eko irailaren 30ekoa –2005eko zuzentarau horrek Europako Parlamentuaren 2002/98/EE Zuzentaraua aplikatu zuen–. 1343/2007 Errege Dekretua 2007ko azaroaren 1eko 262. EAOn argitaratu zen, 44628 orrialdean.



A.- Oinarrizko Osasun Laguntzan Kudeaketa Klinikorako Plana da Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren ekimenak eta jarduerak markatzen dituen lerro nagusia.

Funtsean, zerbitzuen eta baliabideen erabilera zehazten du Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren eta Oinarrizko Osasun Laguntzako talde bakoitzeko zuzendaritzaren artean, eta gure erkidegoko osasun eskualde oinarrizko guztietarako kudeaketa-tresna da.

Kudeaketa Klinikoaren Planak xede du osasun etxeetako kalitatea hobetzea kalitate zientifiko eta teknikoaren arloan, eraginkortasunean, efizientzian eta herritarren onargarritasunean, betiere zenbait lerroren bitartez:

1.- APE-en zerbitzuen eskaintza definitu eta homogeneizatzea

2.- Laguntzako, prebentzioko eta sustapeneko oinarrizko zerbitzuen ezarpena bermatzea Nafarroako osasun eskualde oinarrizko guztietan, behar diren norainokoarekin eta kalitatearekin.

3.- Aukerako laguntzako zerbitzuen ahal den ezarpenik handiena bermatzea Nafarroako osasun eskualde oinarrizko guztietan, behar diren norainokoarekin eta kalitatearekin.

4.- Baliabideen ezagupena eta erabilera hobetzea.

5. Profesionalak laguntza-prozesua ebaluatzeo eta hobetzeko prozesu jarraitu batean inplikatzeari.

6. Lortzea herritarrek informazio gehiago eduki dezaten eta zainketetan asebateago egon daitezkeen APE-ek ematen dituzten zerbitzuekin.

7.- Langileak ebaluatzeo eta sustatzeko sistema bat garatzea, aurreko puntuetan zehaztutako lerroak garatzea bideratuko duena.

Honako estrategia hauek erabiliko dira: oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuen zorroa, kalitateari buruzko berriak adierazleak eta oinarrizko osasun laguntzako hobekuntzarako barne programak egitea.

Kudeaketa planaren ebaluazioak zerbitzuen eskaintza eta baliabideen erabilera neurtzen du, hau da, APEk osasun barruti oinarrizkoko biztanleei ematen dizkien zerbitzuak, kalitatea eta kostua.

Irakaskuntza eta prestakuntza etengabeak konstante hartzen ditu APE-etako langileek atzemandako beharrak, zerbitzuen zorroaren ebaluaziotik ondorioztatutakoak.

B.- Laguntza espezializatuan, programa-kontratuak dira kalitatearen kudeaketaren marko estrategikoa. Urtero sinatzen dituzte zentroetako zuzendaritzek eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gerentziak.

Aldi berean, ospitaleetan kalitatea kudeatzeko berriak egitura eta langileak badaude (maiatzaren 18ko 170/1998 Foru Dekretua): Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko Aurreneurrien Medikuntzako eta Kalitatearen Kudeaketako zerbitzuak eta Ubarmin Klinikako, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko eta Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Aurreneurrien Medikuntzako eta Kalitatearen Kudeaketako unitateak. Ospitale kalitatearen kudeaketari dagokionez, laguntza prozesua aztertzeo, ebaluatzeo eta kontrolatzeko eginkizunak betetzen dituzte, eta zentroaren zuzendaritza hobetzeko neurri zuzentzaileak proposatzen dituzte.

C. Oinarrizko osasun laguntzaren eta laguntza espezializatuaren arteko koordinazioa. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, 2000n, Oinarrizko Osasun Laguntza Koordinatzeko Plana prestatu zuen, gaixoarentzako jarraitutasuna eta pertsonalizazioa bermatzeko helburu orokorrarekin, eta sistemaren eraginkortasuna eta efizientzia orokorra areagotzeo, antolaketa egokiaren eta bi laguntza-maila horietako klinikoaren arteko harremanaren bitartez.

Koordinazioaren egitura zuzendaritza tekniko batek, batzorde tekniko batek, koordinazio klinikoaz arduratzen direnek (zerbitzuburuak eta, kasu bada, laguntza espezializatuaren arloko koordinatzaile anbulatorioak, oinarrizko osasun laguntzako zuzendariak eta espezialitate bakoitzeko hobekuntza planetako arduradunak) osatuta dago.

Honakoak dira planak bilatzen dituen helburu estrategikokoak:

– Gaixoari laguntza egokia, etengabea eta pertsonalizatua eman dakion bermatzea.

– Komunikazio-sistemak eta gaixoei zita emateko laguntza-zirkuituak hobetzea.

– Oinarrizko osasun laguntzaren eta laguntza espezializatuaren arteko urteko itun bat egitea, zerbitzu espezializatuaren eskaintza eta eskaria berregokitzeko.

– Bi laguntza-maila horietako arduradun klinikoaren artean harreman-bideak ezartzea.

– Hobetu daitezkeen arlo klinikoari lehentasuna ematea eta adostutako hobekuntza-planak sustatzea.



– Oinarrizko osasun laguntzaren eta laguntza espezializatuaren baterako inplikazioa bultzatzea sendagaien erabilera arrazionala lortzeko.

– Prestakuntzarako estrategia etengabe bat garatzea.

D.- Osasun Departamentuak, bere irakaskuntza-planarekin, laguntza ematen du prestakuntza-ekintza ugari egiteko, bai kalitatearen kultura osa-

sun-sisteman zabaltzeko, bai kalitate proiektuak Nafarroako osasun sistema publikoan beren ondorio guztiekin ezartzeko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko uztailaren 14an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

---

## **Galdera, jakiteko zergatik utzi duen kargua bere borondatez María Luisa López Ballanok, Nafarroa Zaragozako EXPO 2008n egotearen arduradunak.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zergatik utzi duen kargua bere borondatez María Luisa López Ballanok, Nafarroa Zaragozako EXPO 2008n egotearen arduradunak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko uztailaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera

egin du eta idatzizko erantzuna eskatu, jakiteko zergatik aurkeztu zuen borondatezko kargu-uztea María Luisa López Ballano andreak. Hona Nafarroako Gobernuak eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

María Luisa López Ballano andreak aurkezturiko idazkian ez da inolako arrazoi edo zergatirik agertzen, ezta ondoren erretiroa hartzeko aurkeztutako eskarian ere.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betetzeko.

Iruñean, 2008ko uztailaren

Nafarroako Gobernuak eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

**Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen kapital pribatuko zahar-etxeren batekin hitzartzeko zainketa aringarrien tratamendua edo, aitzitik, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko eremuren bat horretarako gaitzeko asmorik duen.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen kapital pribatuko zahar-etxeren batekin hitzartzeko zainketa aringarrien tratamendua edo, aitzitik, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko eremuren bat horretarako gaitzeko asmorik duen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko uztailaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellanok galdera egin du jakiteko ea Tuterako Reina Sofía Ospitaleko eremuren bat zainketa aringarriak emateko gaitu behar ote den. Hona horri buruzko informazioa:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak asmoa dauka San Juan de Dios Ospitaleak zain-

keta aringarriak behar dituzten gaixoei ospitaleratze erregimenean ematen dizkien zerbitzuak ituntzeko.

San Juan de Dios Ospitaleak ospe handia dauka zainketa aringarriak ematearen arloan. Gaur egun, itun bat daukagu zainketa aringarriak behar dituzten gaixoak Iruñean ospitaleratzeko, eta, gainera, San Juan de Dios Ospitaleko oinarriko osasun laguntzako sendagileei laguntza ematen die foru erkidego osoan etxean zainketa aringarriak behar dituzten gaixoak artatzeko.

Aurreikusitako itunarekin, San Juan de Dios Ospitaleak ospitaleratze erregimeneko laguntza emanen die zainketa aringarriak behar dituzten Tuterako osasun barrutiko gaixoei, osasun barrutian Iruñekoaren kalitate-irizpide berak dituen unitate bat sortuz.

Laguntza unitatea Torre Monreal egoitzan egonen da, egoitzako gainerako eremuetatik independentea den toki batean.

Aurreikusita dago unitatea aurtengo 4. hiru hileroan hastea lanean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 22a

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen fundazioko gobernu batzordean dituen ordezkariet buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen fundazioko gobernu batzordean dituen ordezkariet buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 27ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailearen 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen fundazioko gobernu batzordean dituen ordezkariet buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak, gai hori dela eta, zenbait galdera egin ditu:

Horri dagokionez, hasteko adierazi beharra dago Tuterako Erruki Etxearen egoitza izen bereko fundazio pribatu batena dela. Fundazio hori Fundazioen Erregistroan izena emanda dago, eta haren egungo estatutuak 1987ko irailaren 24koak dira.

Izan ere, haien arabera, egoitzaren gobernua, administrazioa eta animazioa egoitzako patronatu-ko batzordearen, gobernu batzordearen eta zuzendaritzaren esku daude.

Patronatu batzordea fundazioaren organo gorena da, eta hari dagokio patronatuaren ordezkarietza ofiziala. Bitartean, gobernu batzordeari

arestian aipaturiko estatutuetan definituriko administrazio-eginkizun batzuk dagozkie.

Horren osieran agertzen dira, erreferentziako estatutuen arabera, Nafarroako Gobernuaren bi ordezkari, eskuordetutako alkatea edo alkateordea eta Tuterako Udaleko bi zinegotzi, katedraleko deana edo hartako kabiloko beste kalonje bat eta Real Sociedad Económica de Amigos del País elkarte-ko bi ordezkari.

Hala eta guztiz ere, gaur egun Nafarroako Gobernuak ez du inongo ordezkariarik aipatu batzordean. Kontuan hartu beharra dago, hortaz, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, Nafarroako Mendekotasun Agentziaren bitartez, kontratu bat sinatu zuela 2008ko urtarrilaren 31n Tuterako Erruki Etxearekin, aipatu egoitzan mendekotasuna dutenezako 86 egoitza-toki, 2 familia-toki eta eguneko zentroko 15 toki erreserbatze eta betetze aldera.

Gisa bertsuko beste kontratu batzuen hurrengo den kontratu horren bidez, Nafarroako Mendekotasun Agentzia, kontratuan bertan jasotzen diren ezaugarriekin eta betekizunekin bat, zerbitzu publiko bat ematen ari da. Administrazioak, kontratuak ezartzen duenari jarraikiz, zerbitzu horren kontrola eta jarraipena egiten du, eta, hartara, administrazioak bere eskumena baliatzen du eta zerbitzu publikoak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzen du. Zerbitzu publiko horretaz haratago, ez dugu uste egokia denik Nafarroako Gobernuak entitate pribatu batean esku har dezan, eta horregatik egiten dio uko, hain zuzen ere, entitate horren gobernu-organotan ordezkariak izendatzeari.

Iruñean, 2008ko uztailearen 24an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, plantilla handitzeari eta lanpostu berrietan euskara ezagutzea eskatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du plantilla handitzeari eta lanpostu berrietan euskara ezagutzea eskatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 27ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Plantilla handitzeari eta lanpostu berrietan euskara ezagutzea eskatzeari buruz (PES-00019`8/08). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusian dauden datuen arabera, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko eta haren menpeko erakunde autonomoetako plantilla 2.429 lanpostu igo da 2001eko urtarrilaren 1etik 2008ko uztailaren 1era bitarte (igoera kalkulatzeko, lanpostu sortu berrien kopuruari lanpostu amortizatuen kopurua kendu zaio).

Lanpostu sortu berrietarik 610etan eskatu da euskaraz jakin beharra lanpostua betetzeko eskakizun gisa. Hona lanpostu horien kopurua eta mota, lanpostuen hurrenkera alfabetikoaren arabera:

Administrariak, 1

Administrari laguntzaileak, 10

Zaintzaileak, 5

Fisioterapeutak, 1

Hezkuntzako ikuskatzaileak, 4

Logopedak, 1

Maisuak, 361

Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleak, 1

Bigarren Hezkuntzako irakasleak, 216

Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, 8

Euskarako erdi mailako teknikariak, 1

Euskara itzultzaileak, 1

Azkenik, 30 lanpostu sortu berrietan ezarri da lanpostua betetzeko merezimendu gisa, besteak beste, euskaraz jakitea. Lanpostu horietarik 20 eremu euskaldunetan daude, eta gainontzeko 10ak, berriz, eremu mistoan. 10 horietarik 3 gelaburu lanpostuei dagozkie, eta 7, berriz, koordinaziorako operadore laguntzaile lanpostuei. Eremu euskalduneko 20 lanpostuei dagokienez, ondokoetan balioetsi da merezimendu gisa euskaraz jakitea:

Suhiltzaileak, 2

Suhiltzaile-kaboak, 2

Foruzain-kaboak, 8

Sukaldariak, 1

Atezainak, 2

Zerbitzu anitzetako enplegatuek, 1

Liburutegiko arduradunak, 1

Basozainak, 3

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko uztailaren 31n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

## **Galdera, prestatu diren, prestatzen ari diren eta etorkizunean eginen diren plan zuzendariei eta horiek erasanen dituzten eraikin edo tokiei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du prestatu diren, prestatzen ari diren eta etorkizunean eginen diren plan zuzendariei eta horiek erasanen dituzten eraikin edo tokiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko uztailaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du plan zuzendariei buruz. Hona Vianako Printzea Erakunde-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Hasteko eta behin, esan beharra dago plan zuzendariak direla agiri batzuk helburu dutenak zenbait monumentutan, garrantzi, tamaina eta konplexutasun berezia dutenetan, eta zehazki katedraletan –horietarako sortu zituen hain zuzen Kultura Ministerioak laurogeiko hamarkadaren amaieran–, monumentuok osatzen dituzten alderdiak sistematikoki deskribatzeko, aztertzeko eta baloratzeko, horien zaintza, kudeaketa, erabilera, ezagutza eta hedapena arrazionalizatzeko edo hobetzeko.

Plan zuzendariak, beraz, asmo handiak dituzten agiriak dira. Horietako bakoitza idazteko, profesional askoren lana behar da: arkitektoak, historialariak, zaharberritzaileak eta abar. Denen artean, diziplina askotariko taldea osatzen dute, horixe behar baitute katedralak, ikuspegi integrala hain zuzen.

Plan zuzendari bat taxutzeko prozesuak hiru fase ditu.

Lehenbiziko fasea, alde aurreko fasea, non kronologia eta jarduteko metodologia zehatza ezarriko diren; katedralaren lehenbiziko diagnostiko baten ondotik, berehalako jarduketa-plan bat prestatuko da, plan zuzendaria idatzi bitarteko epera-

ko. Fase horrek, gehienez ere, sei hilabete iraun beharko luke. Bigarren faseak plan zuzendariaren prestaketa hartzen du. Denbora aldetik luzeena da eta epeka bana daiteke, kontrola edo eraginkortasuna handiagoak izan daitezke; epe honetan zehar, ordea, lana homogeneoa izanen da. Azkenik, hirugarren fasea gauzatu da: lanaren argitalpen erabatekoa edo partziala.

Bigarren fasean, hots, plan zuzendariaren idazketan, lehenbizi informazio eta analisi aldi bat dago, ondoren diagnostikoa egiten da eta, hirugarrenik, jarduketa programetan jartzen da indarra. Aipatutako eskemaren xehetasunak aldatu egin daitezke monumentu batetik bestera.

Berrikiago, 2000. urtearen ondoren, Kultura Ministerioak planteatu du plan zuzendariak egitea interes kulturalako ondasun diren komentuetarako, abadietarako eta monasterioetarako; plan horien edukia ez du zehaztu, seguruenik eraikin bakoitzari egokitu beharko zaiolako.

Era berean, beste mota bateko zenbait monumentuetarako ere planteatu izan da plan zuzendariak egitea, zenbait monumenturen tamaina, konplexutasuna eta garrantzi berezia dela-eta egokia izan baitaiteke halako planak egitea.

Plan zuzendariak, aipatu diren ezaugarriengatik, ez dira dokumentu egokiak interes kulturalako ondasun gehienetarako. Jarduera-planak, maila apalagoko dokumentuak izanda ere, izaera analogoa dute eta egokiak gerta daitezke interes kulturalako zenbait ondasunetarako, baldin eta horien eskema, edukia eta irismena monumentuaren ezaugarrien neurria egokitzen bada.

Baina, aipatu behar da, ordea, dokumentu mota baten zein bestearen idazte-eskemak ongi frogatutako lan-sistema bat duela oinarri, eta, nahiz eta izen bera ez izan, lan-sistema horri helitzen diotela ondarearen arloan eskudunak diren administrazioetako zerbitzu teknikoek –baita Nafarroakoak ere– ondare historikoa osatzen duten eraikinen kontserbazioari eta transmisioari aurre egiteko; betiere, sistema neurritz egokitzuz monumentu eta eskualde edo herrialde bakoitzaren baldintza berezietara. Lan-metodo horietako etapa bakoitzak –analisi, diagnostikoa, esku-hartzea eta kontserbazioa– berriazko edukiak ditu; edukiok garapen bat edo beste izan dezakete, eta,

halaber, modu batera edo bestera antola daitezke eraikina nolakoa den, eta behar den malgutasunarekin aplikatu ere bai, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoek sarri askotan mugapenak ezartzen baitituzte.

Egoera hori kontuan hartuta, informa diezazuket honakoak direla gaur egun egiten ari diren plan zuzendariak edo azterketak, edo azken urteotan egin direnak:

- La Oliva monasterioko plan zuzendaria.
- Iruñeko katedraleko alde zuzendariak eta patologien karakterizazioa: fatxada neoklasikoa eta klaustro gotikoa.
- Tuterako katedraleko plan zuzendaria. Alde zuzendariak eta patologien karakterizazioa klaustro erromanikoan.
- Arradako esparru harresitua museo bihurtzeko proiektua.
- Andelosko hiri erromatarreko plan zuzendaria.

– Arellanoko villa erromatarreko plan zuzendaria.

– Santa Crizko (Eslaba) aztarnategi erromatarreko plan zuzendaria.

– Martzillako gazteluan esku hartzeko proiektua.

– Fiteroko Monasterioko alde zuzendariak eta azterlanak.

– Lizarrako San Pedro de la Rúa elizan jarduteko plana.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 1ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak NA-150 errepidea, Aos eta Murelu-Longida artean, hobetzeko duen asmoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak NA-150 errepidea, Aos eta Murelu-Longida artean, hobetzeko duen asmoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko uztailaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-150 errepidea, Iruña-Agoitz-Irunberri (Aosko saihebidetik eta Murelu-Longida bitarte), hobetzeko asmoari buruz. Hona hemen

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

NA-150 errepidea, Iruña-Agoitz-Irunberri (Murelu-Longidatik hasi eta Villatuertara bitarte), 2002-2009 aldirako Errepideen II. Plan Zuzendariaren aurreikusita dago. Lanak ez dira oraindik egin aurrekontuetan dirurik ez dagoelako.

2009-2016 aldirako Errepideen II. Plan Zuzendariak, gaur egun prestatzen ari denak, obra horren programazio berria definituko du.

Proiektua prestatzen ari da, baina informazio publikoko tramitea falta da programazio berria definitzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko uztailaren 30ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 62.2. artikuluan ezarritako erregelamenduari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 62.2. artikuluan ezarritako erregelamenduari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko uztailaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 62.2 artikuluan ezarritako erregelamenduari buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 62.2 artikulua erregelamendu bidezko garapenerako uzten du gizarte zerbitzuetako profesionalen buruzgai batzuen erregulazioa.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak lanean dihardu gaur egun aipatu foru legearen erregelamenduzko garapena osatzeko. Garapen horrek gai ugari hartzen ditu, eta hura prestatzeko tramitazio konplexua bete behar

da, landutako arauen zuzentasun tekniko eta juridikoa bermatzeko eta inplikaturiko instantzia guztiek parte hartu ahal izan dezaten.

Horri dagokionez, berriki onetsitako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak, Nafarroako Gobernuak onetsia eta Foru Parlamentua erabaki dezan igorria, zehazki 1.1 neurrian 1. lerro estrategikoa jasotzen du, garapen normatiboa izana daramana, eta bertan, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea garatzeko kronograma bat jasotzen da. Kronograma hori da nahitaez aipatu behar duguna.

Izan ere, haren arabera aurreikusten da Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen garapena 2009rako osatuta egotea, orduan bukatuko baitira oinarrizko gizarte zerbitzuen, zerbitzu espezializatu eta gizarte zerbitzuetako zentroen lanbide arteko taldeen osaketari eta funtzioei buruzko erregelamenduak. Garapen horretan, halaber, erreferentziako profesionalaren figura jasoko da, bai eta sistema profesional hori esleitzeko modua eta erabiltzaileek profesionalak hautatzeko modua ere. Era berean, berriazko baimenak eta homologazio administratiboak lortzeko kalitate- eta prozedura- baldintzak edo estandar gutxienekoak. Erregelamendu horietan guztietan parlamentu-galdera honen arrazoia oinarritzen duen 62.2 artikuluan aurreikusitako gaiak jasoko dira.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 1ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, jakiteko noren ardura den Queiles ibaiaren Tuterako tartea zaintzea.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko noren ardura den Queiles ibaiaren Tuterako tartea zaintzea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko uztailearen 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko noren ardura den Queiles ibaiaren Tuterako tartea zaintzea, landarediaren azken garbiketak direla eta. Hona Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Noren ardura da Queiles ibaiaren Tuterako tartea zaintzea?

Hiriguneetako kontserbazio eta mantentze lanak toki entitatearen eskumena dira, beste administrazioetatik horretarako jaso ditzaketan laguntzak alde batera utzita. Betiere, jarduketa horiek ibai-arroaren ardura duen erakundeak, alegia Ebroko Konfederazio Hidrografikoak (CHE), baimendu behar ditu.

Ibaia garbitzeko baimenen kopia.

Baimenak CHEk ematen ditu, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari bere eskumenekoak diren alderdiei buruzko txostena

eskatu ondoren. Hori dela eta, baimenak edo Tuterako Udalari edo Konfederazioari eskatu behar zaizkio.

Edonola ere, eta Queiles ibaiari dagokionez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2008an Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari txosten bat eskatu dio Tuterako hego-ekialdeko saneamendu sareetatik heldu diren uholdeak eta gainezkako uren kopuruak gutxitzeko proiektuko lanen baimenari buruz. Proiektua Nil sak sustatua da. 2007an, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eskatuta, txostena eskatu zen Queiles ibaiko parkea urbanizatzeari buruz (HAPOko AA-7), Tuterako Udalak sustatua.

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak hartuko dituen neurriak, ugaltze sasoiaren dauden txorien habiak –urretxindorrenak, txinboenak edo lezkariak– leheneratzeko.

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren ustez ez dago zertan neurri berezirik hartu ugaltze garaian landare-formazio horiei loturiko hegaztien habitata leheneratzeko, zeren eta landare horiek berez oso azkar leheneratzen baitira, batetik, eta inguruan ugalketarako beste leku egokiago batzuk badaudelako, bestetik. Hartara, hegazti kopuruak ez dira asko gutxituko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 1ean

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria



## **Galdera, El Bocalen iragan ekainaren 24an izandako suteari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du El Bocalen iragan ekainaren 24an izandako suteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko uztailaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du 2008ko ekainaren 24an El Bocalen gertaturiko sutearekin lotutako zenbait gairi buruz. Sute hartan, bi hektarea inguru pinu eta sastra erraustu ziren. Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Sutearen arrazoiak

Guardia Zibilaren prebentzio-diligentzietatik eta Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuko Zainketa Zerbitzuko baso-agenteen ikuskapen-aktatik ondoriozta daitekeen bezala, sutearen jatorria Aragoiko Ubide Inperialeko instalazioetako sastraken garbiketen eta kimatzen ondoren sorturiko landare-hondarren piletan egon zen, bide baten ondoan metatuta baitzeuden.

Sutea eta ondoren, oso zaila da, ezinezkoa ez esateagatik, erabakitzea sutea sortu zuen ignizioa bat-bateko erretze bati dagokion edo meta horietakoren bat nahita erre izanari. Baieztapen hori egiteko argudio gisa, Guardia Zibilaren diligentsiak daude, baina haietan ez da inor erruduntzat jotzen.

Suteak eragindako kalte materialak

Instalazioetan ez da nabarmentzeko moduko kalte materialik sortu. Kalteak landareei dagozkienak baino ez dira.

Halere, gaurko arrasto batzuen arabera, baliteke zuhaitzen zati bat ere hilik egotea. Denborartarte bat itxaron beharko da suak hartutako zuhaitz-oinen balizko kimuak baloratu ahal izateko.

Galera ekonomikoen balioespena

Galera ekonomikoak bi kontzeptutan zentratzen dira: ukitutako zuhaitzen balio zenbagarria eta eskualdeko biztanleentzat erakarmen handia duen gune baten paisaia-ukipenaren balioa.

Ukitutako zuhaitzen balioari dagokionez, kontuan hartu da ukitutako espezieen ordez antzeko beste batzuk landatzea, bai eta landatutako zuhaitz horiek beren bizitzan zehar eskatzen dituzten mantentze-lana, gaur egungoaren antzeko egoerara iritsi arte (40 urte direla jo da). Horretarako, espezie hostozabalen 1 ha eta koniferoen 0,5 ha hartu dugu erreferentzia gisa. Horrek 15.125 euroko balioa egiten du.

Paisaia-ukipena ezagutzeko, beste parametro batzuk ezagutu beharko lirateke: bisitariak, jatorriak eta abar. Balio ekonomikoaren gaineratik % 15 inguru kalkula daiteke: guztira 2.268 euro inguru eginen luke.

Hartara, azken emaitza 17.393 euro izan daiteke.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetze-ko.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturria

## **Galdera, Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko asmoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Ribaforadara NA-232 errepidetik sartzeko biribilguneak argiztatzeko eta txukuntzeko asmoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Mendabiako saihebideari buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Ondoko jarduerak egin dira Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Ribaforada eta N-232 errepidea lotzeko biribilguneei dagokienez 2008ko otsailaren 18an idazkian hartu zituen konpromisoen ondorioz:

1) Argizteria: 2008ko apirilaren 7an esleitu zitzaion Montajes Eléctricos Feler, S.L. enpresari “Ribaforada eta N-232 errepideko lotunea elikatze-ko proiektua, erdi-tentsioko lineaduna 13,2/kv”. Kontratua behar bezala bete zen. Halere, 2008ko abuztuaren 6an, abian jartzera zihoanean, ohartu ziren kable bat ostu zutela argiteria-instalazioetan, eta horrek eragotzi du argiteria-sistema doitzea. Lapurretaren berri eman zaie aseguruari eta Guardia Zibilari, eta neurriak hartzen ari dira kablea berriro jartzeko. Asmoa da 2008a bukatu aitzin abian jartzea.

2) Landaretza berritzea: Herri Lan, Garraio eta Komunikazio zuzendari nagusiaren 2008ko apirilaren 3ko 376/2008 Ebazpenaren bidez, Gestión Ambiental, Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. enpresari esleitu zitzaion lana. Landatzeko sasoi udazkena/negua denez, 2008ko urrian hasi ziren landaretzeko eta lurak egokitzeko lanak, eta 2008ko abenduaren 31n bukatuko dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, jakiteko zergatik hautatu den aurrekontuen murrizketarako toki entitateek Otik 3 urterako ikastetxeak eraikitzeak dirulaguntzen kontusaila.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko zergatik hautatu den aurrekontuen murrizketarako toki entitateek Otik 3 urterako ikastetxeak eraikitzeak dirulaguntzen kontusaila.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak galdera bat aurkeztu du toki entitateek Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeak eraikitzeak dirulaguntzen deialdiari buruz. (PES-226)

Zehazki, gogora dakar Ikuskapen eta Zerbitzuen zuzendari nagusiaren uztailaren 4ko 252/2008 Ebazpena, apirilaren 1eko 91/2008 Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateei diru-laguntzak emateko deialdia onetsi zen Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzako ikastetxe publikoak eraikitzeak.

Ebazpen horretan xedatzen denez, “memento honetan aurrekontuan dagoen diruaren arabera, beharrezkoa da aipatu dirulaguntzen deialdiko aurrekontua mugatzea, apirilaren 1eko 91/2008 Ebazpenaren bitartez onetsita zeuden 8.000.000 euroak gehienez ere 5.975.000 eurora murriztuta.”

Hori dela eta, ondokoa galdetzen du: Zergatik hautatu da kontusail hori aurrekontuen murrizketarako? Zer toki erakunde ukituko ditu murrizketak horrek?

Nafarroako Gobernuak, hezkuntzaren alorrean, funtsezkotzat jo du modu orokorrean ezartzea haur hezkuntzako lehen zikloa, Otik 3 urtera bitartekoa. Asmo hori agerian gelditu zen hala Gobernuaren jarduna sostengatzen duten alderdi politikoaren –UPNren eta CDNren– hauteskunde programetan nola Gobernuak lehendakariaren inbestidurako hitzaldian nahiz Hezkuntza kontseilariak Parlamentuko Hezkuntza Batzordean egingako lehen agerraldian legegintzaldiari begira

ezarri zituen helburuetan. Horren emaitza da garrantzuz joan den ikastetxeen sare zabala, eta, zehazki, legegintzaldi honetan abian jarritako toki kopurua.

Ikastetxe berriak egiteko darabilgun filosofia borondatezko “tutoretza” da, toki entitate gehienek onartua eta eskatua. Halatan, ikastetxeei aholku ematen zaie banan bana. Praktikan, eskariak aurkeztu ahala eman da erantzuna, halako moduz non toki entitate bakoitzak proiektua ondu duen unean jaso baititu bere ikastetxea eraiki eta irekitzeko dirulaguntzak.

Dena den, deialdia abenduan ebazten zen, eta, hortaz, zailtasun ekonomikoak dituzten udalek ezin zituzten dirulaguntzak jaso, ezin baitziren arriskatu obra aurreratu eta gero dirulaguntza jaso gabe gelditzera.

2007ko deialdia, 3.675.501,05 euroko aurrekontua baitzuen, horrela ebatzi zen.

Eragozpen hori ekidite aldera eta Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeen sarea erabakitasunez bultzatze aldera, Hezkuntza Departamentuak bi erabaki hartu zituen. Hona:

1. Aurrekontua 4.000.000 euro bitarte igotzea. Ikusita zertan ziren udal bakoitzaren planak, ez zen komeni zenbatekoa gehiago igotzea.

2. Deialdia sei hilabetez aurreratzea, egoera ekonomiko zailean diren udalek aurkezteko modua izan dezaten; plana honakoa zen: deialdia sei hilabetez aurreratuz gero, kasuan kasuko urteko aurrekontuen aurretik izapidetu ahalko zen deialdia azken urtean.

Hala gelditu zen jasota zenbateko hori aurrekontuen zirriborroan. Parlamentuko tramitazioan 8.000.000 eurora igo zen zenbatekoa.

Ezarritako plangintzari jarraikiz egin zen deialdia, eta horrela lortu zen urte erdiz aurreratzea. Aintzat hartzekoa da administrazioak eginiko ahalegina, bi deialdi ebatzi baitzituen urte erdian.

Halere, udalek zer plan zituzten jakitean, pentsatzekoa zen ez zela amaituko deialdirako gorde-tako diru-kopurua; izan ere, atzeratuta zeuden udalek, haien nahiz Hezkuntza Departamentuaren ahalegin bateratua gorabehera, ezin izan zuten justifikatu deialdiko zenbateko gutzia.

Errealitate ekonomiko berriaren eta blokeo bat egin beharraren ondorioz –eginen ez den gastu bat erreserba-fasean utziz–, deialdiko zenbatekoa egoera errelera egokitzen duen ebazpena egin behar izan genuen. Halere, zenbatekoa aurreikuspenen gaintik utzi behar genuela pentsatu genuen, atea zabalik uzte aldera udalen batek horrekin bat egin dezan. Horrenbestez, udalen bigarren zerrenda bat prestatu zen, obrak azkar egin ditzaketenena eta atzeratuta ibil daitezkeen beste batzuek justifikatu ezin dituzten zenbatekoekin eta, azken batean, desblokeatzen ahal diren zenbatekoekin gehitu daitezkeenena.

Hortaz, gure ustez, 6.000.000 euroko zenbatekoa ondo egokitzen zaio udalek oro har justifikatu ahalko duten zenbatekoari, gainontzeko 2.000.000 euroak ez baitziren justifikatuko eta horrenbestez ez baitziren gastatuko.

Bigarren galderari dagokionez, eta eginiko justifikazioa ikusita, uste dugu ez dagoela udal kalte-turik, aurtengo dirulaguntza jaso ez dutenek lehentasuna izanen dutelako etorkizuneko deialdi-etan.

Iruñean, 2008ko irailaren 23an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas  
López de Goicoechea